



MARIA LUISA AGIRREKIN SOLASEAN

Lan handia egin du tolosarrak Tolosan bertan eta inguruko herrietan pediatria gisa; egun 90 urte ditu >6-7



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Asteartea
2009-10-13

VIIURTEA 1.799.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Joxe Mari Gorrotxagi tolosarraren bisita jaso zuten herenegun I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azokan. HITZA

BERTAKO BASERRITARREK IZAN DUTE EUREN AUKERA

LEABURU-TXARAMA Larte Azpi Kultur Elkartekoak «animo osoz» daude bigarren urteari begira; 20 postu inguru bildu ziren frontoian >

Finalurrekoetara sailkatzea zaila izango da Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazurentzat

TOLOSALDEA Bertsolari Txapelketa Nagusiko 3. kanporaketa jokatu zuten Bilbon; laugarren eta bosgarren egin zuten eskualdekoek, hurrenez hurren >

Euskal Jaia, «errepikatze modukoa»

ANOETA Herenegun, eguraldi txarra izan arren, jendeak ondo erantzun zion festari >



Goizean zehar azokan jende ugari bildu zen, pilotalekuan. SARA GOMEZ



Jokin Bildarratz Tolosako alkateak banatu zituen sariak. E. EZBIZA

Valdivielso eta Llamas izan dira azkarrenak

TOLOSA San Estebango XXII. herri krosean 266 korrikalarik hartu zuten parte atzo, euripean >



Esker-eskuin: Maddalen Arzallus, Julio Soto, Asier Otamendi, Amaia Agirre, Iñaki Zelaia eta Jexux Mari Irazu. HITZA

Asmatu ezinda



» Iritzia

Felix Irazustabarrena
Gipuzkoako Bertsosale Elkarte
lehendakaria

Batez ere, neregatik ari naiz. Ez nuen pronostikotan asmatu, ez saioa hasi aurretik eta ondoren ere ez. Eta bertsolariek ere ez det uste, erabat behintzat, asmatu zutenik Bilbon. Puntuazioak ikusita gure eskualdeko bi ordezkariengatik hori esan daiteke, eta neurri batean nik ere pentsatzen det hori. Amaia zein Jexux Mari ez zirela bere mailan aritu alegia. Hala ere, txapelketako lehiaren gogortasuna onartuta, gogorregia izan ote den pentsatzen nago.

Amaia tonua aurkitu ezinik ibili zenaren sentsazioa eman zidan. Bere ofiziotako lanetan, tokatutako gaiak, lagunak... ez zioten utzi bere ahaleginak elkarrizketatara bideratzen. Zortziko handian serio samar hartu nahi izan ote zuen eta lagunak, ezustekoak aparte, bestelako bidea ote zuen. Txikiaren berriz umorerara jotzen hasi eta zentsura, politika nahastu zizkionean Zelaiak, ez ote zuen jakin bidea lagunekin jorratzen... Hamarreko txikiak bai, gordin samar, baina sinesgarriago eta elkarrekin bidea eginez osatu zuen saioa Arzallustar gazteenarekin.

Orokorrean ez zuela behar bada nahi zukeen bezela bertsoetan luzitu, baina ataka zailetan sartu eta onik irten zelairuditu zitzaidan neri. Puntu erantzun onekin eta kartzelako txukun batenkin osatu zuen saioa.

Jexux Mariaren ahalegina ere elkarrizketak osatzearena izan zela uste det eta tonuan, kolorean... asmatu ere egin zuela. Zelaiarekin joku gehiago emango ziolakoan amen papera hartu, hilkako erregistroan jardun... Txikiaren Maddalen amonarekin eztabaida bizia (xixa-hori purearen presentzia igual ez zen egokiena izan baina) eta hamarrekoan ideiak osatu eta ederkijosi bertsoak (Bilboko uraren aipamenekoa batez ere) Kartzelakoan, ilunabarretik egun argi bitartean etxetik kanpo dabilenaren papera beharrean, egun argitan atera eta argirik gabe bueltatzen denera eraman zuen gaia. Eta hori zigortu ote zutenaren ustea zabaldu zen.

Orain biak daude ia lehiatik kanpo. Jokoaren gazia probatu dugu Bilbon eta jolasaren gozoa azkar eskeiniko digutelakoan parako degu orrialde hau.

Sailkatzea zaila izango da Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazurentzat

Txapelketa Nagusia » Bilbon jokatu zuten 3. kanporaketan laugarren eta bosgarren egun zuten, hurrenez hurren.

ERREDAKZIOA

Bilboko Arriaga antzokian jokatu zuten herenegun Bertsolari Txapelketa Nagusiaren hirugarren final-laurdena. Eskualdeko ordezkariak, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazuk, zaila izango dute finalurrekoetarako sailkapena, ez baitzuten oso saio ona burutu. Agirre billabonatarrek laugarren postuan amaitu zuen, 631,5 punturekin. Irazu larrauldarrek, aldiz, bosgarren egun zuten 599,5 punturekin.

Iñaki Zelaia batu zituen puntu gehien Bilbon, finalurrekoetarako txartela lortuz. Guztira 643 puntu lortu zituen Hernaniokoak.

Amaia Agirre, bere maila eman ezinik

Amaia Agirrek ez zuen bere mailarik onena eskaini, baina hala ere irabazlearengandik 13,5 puntura geratu zen Villabonakoa. Une hauetan, hiru kanporaketa jokatu eta beste hiru jokatzeko dauden honetan, Amaia Agirre seigarren da sailkapen orokorrean. Puntu gehien dituzten hamaika bertsolariak sailkatuko dira finalurrekora. Aukera badu oraindik, hortaz.

Irazu, kartzelan nahastuta

Saio txukuna betetzen ari zen Jexux Mari Irazu larrauldarra Arriagan. Baina kartzelako gaiaren txanda heldu zenean gaizki ulertu zuen planteamendua. Maite Berriozabalek proposatutako gaia hauxe izan zen: «Denbora daramazu ilunabarrean etxetik irten eta egun-argiz itzultzzen. Ezin duzu horrela jarraitu». Haatik, berak goizean etxetik irten eta iluntzean bueltatzen den paperik ga-

» SAILKAPENA

3. kanporaketa

Bertsolariak	Puntuak
Iñaki Zelaia	643
Julio Soto	639,5
Maddalen Arzallus	636,5
Amaia Agirre	631,5
Jexux Mari Irazu	599,5
Asier Otamendi	588

Epaiak

Asier Ibaibarriaga, Bakarne Urreaga, Jon Abril, Ekaitz Elorriaga, Eneko Bidegain, Josu Telleria, Aitzol Astigarraga.

Gai jartzaila

Maite Berriozabal.

beko etorkin baten lekuan jarri zen. Saioa bera oso polita izan zen baina ez zetorren bat proposatutako gaiarekin.

Jexux Mari Irazu hamargarren dago sailkapen orokorrean. Ia izenezkoa du, beraz, sailkatzea.

Arriaga, jendez lepo

Bilboko Areatzan Balendin Enbeinta bertsolariaren oroimenean jarritako irudiaren inguruan bertsozalek josi zen igandean, areto berezia izan baitzuten Txapelketak. Frontoietatik atera eta Arriaga Antzokiak eskaintzen duen erosotasun eta xarmak kolore ederra eman zion txapelketari, eta, horrelakoetan gertatu ohi denari muzin eginez, pilotalekuan bizi ohi den giro beroa nabarmendu zen saio

osoan zehar. Ikusgarria, beraz, Arriaga Antzokiak eskaini zuen irudia. 1000 bat ikus-entzule bildu ziren bertan. Zaleen artean txapelketan parte hartu duten bertsolari asko ikusi ahal izan ziren. Bertan zen, besteak beste, Leitzaun larunbatean puntu gehien lortu zituen Etxahun Lekue larrabetzuarra saioa adi-adi jarraitzen. Ana de Castro Bilboko Udaleko Euskara zinegotziak eta Joxerra Bilbao Santutxuko Bertso Eskolako kideak banatu zizkieten ondoren bertsolariei oroigarriak.

Unai Muñozaren txanda, datorren asteburuan

Eskualdeko hirugarren ordezkariaren, Unai Muñozaren, txanda datorren asteburuan helduko da. Uztartitzen ariko da Berrobikoa hileren 17an, Kiroleta pilotalekuan, 17:30etik urrera. Xabi Paya,

Sailkapen probisionalean seigarren dago Amaia Agirre eta hamargarren Jexux Mari Irazu

Aitor Sarriegi, Erika Lagoma, Beñat Gaztelumendi eta Arkaitz Estiballes izango ditu bidelagun oholtza gainean. Bertan gai emalea Joxana Itzaina izango da.

Aitor Mendiluze berriz azkena sartuko da, zuzenean finalurrekoetan sartzen baita Irurakoa, azaroaren 9an.

Iragarki laburrak

AURKUTUTAKOAK

■ **Arropa.** Larunbat iluntzean, hileren 10ean, mutilentzako arropaz betetako poltsa bat aurkitu nuen Villabonako Olaederra kiroldegia- ren ondoko zubian. Galdu duenak dei dezala 943 655695 telefono zenbakira.

@ Zurea da Hitza. Eskualdean, zure herrian, zure auzoan, gertatzen denaren berri eman dezakezu Zurea da Hitza atalean. Halaber kexak, iradokizunak... ere sar ditzakezue edota bestelako ekarpenak. Horretarako sar zaitzake www.tolosaldeko-hitza.info webgunean eta klikatu Zurea da hitza atalean. Beste ataletan ere bisitaxo bat egin dezakezue, noski:

www.tolosaldeko-hitza.info

Santurtziri irabazi ostean lider da orain Laskorain taldea

Areto-futbola » Larunbatean jokatuako norgehiagokan, 3-1 eginez, sailkapeneko lehen postuan jartzea lortu dute.

ERREDAKZIOA

Txinpartak atera zizkion Laskorainek Pilarika asteburu luzeari. Igandean, anjelusaren orduan jokaturiko partidari, azkeneko bi denboraldietan Nazional A mailan parte hartu duen Santurtzi taldea menderatu zuen eta txapelketako lidergoa eskuratu hiru jardunalditan hirugarren garaipena erdietsi ostean.

Neurketak ez zuen hutsik egin. Santurtziarrak, maila bat gorago pilatu duten eskarmentua lagun, Usabalera hiru punturen bila kan txaratu ziren lotsagabe eta batere etenik gabe berrogei minututan zehar oso goran egin zuten presioa, baloiaren jabetzaren bila batetik eta horitxo huts egitearen zain bestetik.

Ikastolakoek aldiz sasoi betearen ekin diote txapelketari eta presioa presio, ederki asmatu zuten baloiari eusten, batetik bestera dotore mugituaz jokalarien mugimendu etengabe eskerrak. Galerarik gabe ia, presioa dezentetan lortu zuten gainditzea, baina santurtziarren ate aurrera behar bezalako indarrik, funtxik edo argitasunik gabe iritsi ziren.

Horitxoak izan ziren partida hasieran markagailua estreinatu zutenak, txapelketa hasiera harrigarria burutzen ari den Lander Camioren golarekin. Hamar minutu beranduago santurtziarren eskutik banakoa etorri zen.

Atsedenerako bi minuturen faltan, Telleriak bigarren zutoinera bidalitako pasea, Barriola kapitainak bularrarekin, gol bihurtu zuen eta tolosarrak berriro ere aurretik ipini ziren. Ondoren 2 eta 1-ekoak bigarren zati ia guztian iraun zuen, nahiz eta gol aukerak bi atean izan. Azken minutuan, santurtziarrak atezain jokalarien jokaldia egiten hasi zirenean, etorri zen etxekoentzat hirugarren gola.

Valdivielsok eta Llamasek irabazi dute San Estebango XXII. kros herrikoia



Juan Karlos Valdivielso izan zen helmugara iritsi zen lehen gizonezkoa; Nesketan, arabar bat izan zen irabazlea, Raquel Llamas. E. E.



Atletismoa

» Kultur Astearen baitan jokatu zen lasterketa, atzo goizean; 266 lagunek korritu zituzten 10 kilometro, euripean.

ESTI EZEIZA

Herenegun hasi zen San Esteban auzoko Kultur Astea, baina atzo goizean izan zen jai hauetako ekitaldi garrantzitsuenetako bat: XXII. Herri Krosa. 266 lagunek hartu zuten parte lasterketan. Hauek, Tolosako kaleetatik barrena 10 kilometro inguru zeharkatu behar izan zituzten. Horretarako, denbora gutxienez behar izan zutenak, Juan Karlos Valdivielso beasaindarra eta Raquel Llamas gasteiztarra izan ziren.

Euripean, 11:00etan puntuan abiatu ziren korrikalariak Ferialekuaren ateetatik, lasterketa korritzeko. 238 mutil eta 28 neskek hartu zuten parte atzokoan. Iaz baino dezenteko gutxiago. Horren arrazoietako bat, eguraldia izan zela aipatu zuten antolatzaileek, baina egun bat lehenago, antzeko lasterketa bat izatea ere, Donostian. Iaz, kolektorearen obrak zirela eta aldaketak egin zituzten ibilbidean zehar, eta aurten berriro, zenbait zatitan seinaleak mugitu dituzte, zertxobait luzeago egiteko.

San Estebango kros herrikoia jende ugari erakartzen du. Behobiarako prestatzen ari den jendearentzat egokia baita lasterketa hau. Oraingoan 266 lasterkarik hartu zuten parte, eta hauetatik 253k amaitu zuten lasterketa. Honenbestez, arrazoi ezberdinengatik, 13 ez ziren iritsi helmugara. Hala ere, ez zen aparteko ezer gertatu, eta normaltasun osoz igaro zen jardunaldia. Parte-hartzaileen artean hainbat eta hainbat sari banatu zituzten. Gehien eraman zituena,

Eguraldi txarra zela-eta iaz baino jende gutxiagok hartu zuten parte; 253k amaitu zuten proba

hala ere, Valdivielso izan zen. Sailkapen orokorrean helmugara iritsi lehena izan zen, baita bere kategorian ere, hau da, beteranoetan. Nesketan berriz, Raquel Llamas gasteiztarra izan zen helmuga zeharkatu zuen lehendabizikoa. Sailkapen orokorrean, honek, 19. postua eraman zuen.

Tolosarrei dagokionean, mutiletan, lehendabizikoa Joseba Jauregi izan zen eta nesketan, Amaia Arbillaga. Sexuka ez ezik, adinka ere banatu zituzten sariak. Hala, beteranoetan, mutiletan, Valdivielso izan bazen aurrenekoa, nes-

ketan, Arantxa Arano segurarra. Gazteen artean, jubenetan, mutilak bakarrik atera ziren, eta hauetan irabazlea, Andoni Ortiz, 16 urteko anoetarra izan zen.

Hala ere, lasterketako sari gozotena, azkena amaitu zuenak eraman zuen. Atzoko kasuan, Amaia Viteri izan zen. Eskoriatzako lasterkariak, pastel sorta bat eraman zuen etxera. Bestalde, gainontzeko parte-hartzaileen artean, hainbat arropa zozketatu zuten.

Hasi besterik ez da egin Kultur Astea

Herenegun hasi zen San Esteban auzoko Kultur Astea eta igandean arte luzatuko da. Mendi ibilaldi eta krosaren ostean, gaur atsedena hartzeko eguna izango da. Bihar ekingo diete berriro ekitaldiei, eta iluntzean, 20:00ak aldera, Taghia bertilaka goi mendi eskolako kide den Jon Mujikaren eskaladako diaporama ikusgai izango da.

Ostegunean, hau da, etzi, Kultur Asteko klasikoetako bat izango da, VII. Tortila Patata lehiaketa hain zuzen ere. 17:00etatik aurrera hasiko da, eta ondoren luntxa izango da.

Egun berean, baina 22:30etik aurrera, Jaime Ocañaren eskutik, *Yo lo mate, evidentemente* antzez-lana ikusteko aukera izango da. Asteguneko jardueri amaiera

» SAILKAPENA

Gizonezkoetan

- 1. Juan Karlos Valdivielso (0:31:19)
- 2. Sanhaji Tamouh Kamal (0:31:33)
- 3. Eneko Garin (0:31:39)
- 4. Miguel Angel Encina (0:31:56)
- 5. Joseba Jauregi Leunda (0:31:58)

Emakumezkoak

- 1. Raquel Llamas (0:34:08)
- 2. Amaia Arbillaga (0:40:38)
- 3. Gema Hernandez (0:41:38)
- 4. Oihana Ortiz de Zarate (0:42:43)
- 5. Esther Fernandez de Garaialde (0:44:18)

Lehendabiziko gizonezko tolosarra

- 1. Joseba Jauregi.

Lehendabiziko neska tolosarra

- 1. Amaia Arbillaga.

emateko, perkusio doinuak zabalduko dira. 23:00etan hasita, Tam-bua Bashasha afrikarrak, eta Katuburu brasildarrak ariko dira girotzen. Hauei, DJ Talo eta Aritz Sound Sistemek hartuko die erreleboa.

Hilberriak

MAITE SARAGUETA GONZALEZ



Eskerrak bako zure ingurutzagatik
Tolosaldeko beharrazatik

شكرا على دعوتك
المسرة الذين التقيت في مؤتمركم الحيا

IBARRAN
2009ko urriaren 13an

JUAN REZOLA BARANDIARAN

Atzo hil zen, 90 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren
-Goian bego-

Emaztea: Maria Aierdi; seme-alabak: Maritxu eta Juan Jose Iraola, M^o Angeles eta Rikardo Esnaola; bilobak: Jon eta Eneitz Amena-bar, Aitor eta Nagore Etxeberria, Iker eta Begoña Arana, Amaia eta Jose Antonio Garcia; birlobak: Nahia, Maddi, Pablo, Imanol, Telmo; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, GORPUIA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: San Inazio 6 - 3. esk.
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.

ORDIZIA
2009ko urriaren 13a

Herrikoei «orain arte izan ez duten aukera eman diegu azokari esker»

Leaburu-Txarama » Herenegun eginiko I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azokarekin «oso gustura» azaldu dira.

N.LATABURU

Lehen aldiz I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azoka antolatu zuten herenegun Leaburun eta «oso sensazio ona» geratu zitzaizen Larte Azpi Kultur Elkarteko antolatzailei. Helburua «ederki» bete dutela azaldu zuten Gregorio Izagirrek, hau da, «herritar eta baserritarrei orain arte izan ez duten aukera eskaintzea eta herri txikietan egiten den lana erakustea».

Eguraldiak ez zuten gehiegi lagundu eta, ondorioz, postuak herriko pilotalekuan kokatu zituzten. Guztira 20 postu inguru jarri-

zituzten, barazki, abere eta artisautza produktuekin. Saharako postu bat ere jarri zuten, «Leaburu-Txarama Saharako herri batekin senideturik dago eta». Honekin batera taberna txiki bat ere jarri zuten; saskiren bat ere zozketatu zuten ondoren.

Herriko familia gehienek bat egin zuten ekimenarekin. Prestaketa lanetan ere herriak «ilusio handia» jarri zuten eta egunean bertan jende dezente ibili ziren. «Eskualdetik ere jendea hurbildu zen baina batez ere herrikoak mugitu ginen».

Joxe Mari Gorrotxategiren animoak

Luxuzko bisita ere jaso zuten I. Artisau, Barazki eta Ganadu Azokan, Joxe Mari Gorrotxategi tolosarra, hain zuten.

Honek «animoak» eman zizkie-

ten eta bide horretatik jarraitzeko eskaera ere luzatu zien. «Bertako lanaren berri ematearen garrantzia nabarmendu zuen Joxe Marik eta honek asko animatu gintuen», diote antolatzaileek.

Bigarrenez azoka antolatzeko animoz

Eta halaxe da, animoz beteta eta berrindarturik daude Larte Azpi Kultur Elkartekoak bigarren azokari eusteko. «Oso gustura geratu ginen emaitzarekin, animo handia hartu dugu». «Noski, bigarreneko beti dago errepikatuko ez duzun akatsaren bat edo beste», zehaztu dute.



Barazkien postuak izan ziren Anoetako frontoian. SARA GOMEZ



Jende ugari bildu zen frontoian goizean zehar; AHTkoek ere jarri zuten euren postua SARA GOMEZ



«Dударik gabe» berriro errepikatzeko moduko Euskal Jaia

Anoeta » Herenegun bigarren aldiz egin zuten Euskal Jaia; eguraldi kaskarra izan arren jendeak ondo erantzun zuen.

N.LATABURU

Anoetarrek ondo baino hobeto erantzun zioten Euskal Jaia deialdiari. Noski, Leaburun bezalaxe, hemen ere ez zuten gehiegi lagundu eguraldiak baina horrelakoetan esaten den bezala, umore onarekin erantzun zioten eguraldi kaskarrari.

Hala, goiz-goizetik baserritar jantzi-asoian jende ugari ibili zen

Anoetan. Lehenik azokako postuetei bistatxoak eginez eta ondoren plazan antolatu zituzten ekitaldietan. Pilotalekuan jarritako postuetan erosle eta bisitari ugari ibili ziren, herriko baserritarren produktuei begira. Ohi bezala, barazkiak eta artisautza postuak ere ziren falta; arropa saltzen ere izan ziren beste posturen batean.

Bazkari jendetsua

Kanpoaldean animalien postuek ikusmina piztu zuten, batez ere txikiaren artean. Zaldien erakustaldia ere egin zuten, eguraldiak etenalditxo bat eskaini zuela aprobetxatuz. Nola ez, txistulariek gi-

rotu zuten goiza euren musikarekin.

Herri bazkariak bildu zuen jenderik gehien. «Guztira 310 lagun bildu ginen mahaiaren bueltan bazkarirako», azaldu dute Euskal Jaia antolatzaileek.

Arratsalde partean jai giroak ez zuten etenik izan. Herri kirol saioak ere jendetza bildu zuen eta ondoren musikaren txanda heldu zen. Eurria aritu edo ez Itzel taldekoek anoetarrek dantzan jartzea lortu zuten, betiko eta oraingo euskal kantuekin. Bien bitartean, sabela betetzeko aukera ere izan zen talo-gileen postuan.

Euskal Jaia balorazioa, aurrerago

Antolatzaileek, Anoetako Udalak eta herriko gizarte eragileek, balorazio bat egingo dute aurrerago, horretarako bilera egingo dutelarik. Hala ere, beraiek aurreratu dutenez, datorren urtean ere errepikatuko dute, hirugarren aldiz, hain zuten ere. «Dударik gabe Euskal Jaia berriz egingo dugu».

Jendeak oso ondo erantzun zuen eta horrek animatu egiten du. «Ez dakigu esaten iaz baino jende gehiago edo gutxiago izan zen baina giro ezin hobea izan zen, ar gehiago eurria egin zuela kontuan hartuz».



Postu ugari bildu ziren frontoian, eguraldia zela-eta bertan egin baitzuten s.g.



Animaliek ikusmina piztu zuten, batez ere txikiaren artean. SARA GOMEZ



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Tolosa Gobernu Batzarrek, 2009.eko urriaren 5ean egindako bilaren hurrengo plana hasiera batez onestea erabaki zuen:

“31. Euskal Herria Plaza eta bere inguru” azpiemua birgaitzeko plan berezia”

Ekainean 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruan eta Hingintzari buruzkoak, 97. artikuluz 95 artikuluan xedatutakoaren arabera, espediente HOGGI EGUNEZ jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazio hau da: nahi duenak dokumentua aztertu eta alegazioak egiteko aukera ematea.

Irargari hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascon, eta Bernian argitaratuko da, Aurrean aipatu den epea argitalpen honietako azken inargarpena kaleratu eta bihararaberririk hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertu nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udalatzeko Hingintzako Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean, Alegazio edo erreklamazioak eraikin horretan bertan dagoen Samarra Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkate-lehendakarian zuzenduta.

Tolosa, 2009ko urriaren 6an.

ALKATEA,

Jokin Bikilamatz Sorron

Aizkarditik Arrazola, Anboto eta Aramaio ezagutzera

Villabona » Izena emateko azken eguna osteguna izango da. Antolatu duten ibilbidea, 6 ordutan egiteko modukoa da.

ERREDAKZIOA

Urriaren 18rako, mendi ibilaldia antolatu du Aizkardik. Oraingoan, Arrazola-Anboto-Aramaio izango da egingo duten ibilbidea.

Bizkaia eta Arabako lurretan

Arrazola (230m) herriatik abiatuko dira eta Larrano (910m) muinora igoko dira. Bertatik, Kurutzeta (1202m) mendira eta jarraian, Anbotoko gailurrerako (1331m) bidea egingo dute. Behin Anboto gainean daudela, Zabalaundi (900m) alderantz jaitsiko dira. Goranzko bidea hartu eta Orixol (1130m) mendira igoko dira. Bukatzeko, Aramaiorainoko (650m) bidea egingo dute. Ibilbidea, 6 ordutan egin daiteke.

Izena, 20:00etatik 22:00etara 649717182 telefonora deituz eman daiteke edota Aizkardi elkartera joan da. Azken eguna, osteguna, urriaren 15a izango da. Igandean irteera, 07:30ean izango da Olaederra kiroldegitik.

Etxegarate eta Lizarrusti arteko basoetan barrena Sagain mendi taldekoak

Asteasu » Urriaren 18an egun pasa egingo dute 08:00etan abiatuta; lau orduko ibilbide erraza prestatu dute.

ERREDAKZIOA

Sagain Mendi Taldekoak, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugetan barrena ibiliko dira urriaren 18an. Etxegaratek irten eta Lizarrusti-ara bidean dauden basoak zeharkatu dituzte gainez gain.

Gipuzkoa eta Nafarroa artean

Lau ordu inguruko ibilbidea izango da eta antolatzaileen esanetan «zailtasun errazekoa». Egun osoko irteera egingo dute. Autobusa, Asteasuko plazatik abiatuko da goizeko 8:00etan.

Autobusaren kostua, 12 urtetik beherakoek, 5 euro eta 12 urtetik gorakoek, 10 euro ordaindu beharko dute. Apuntatzeko, kiroldegiko telefonora deituz 943693400 egingo da eta azken eguna, urriak 15, osteguna izango da.



Frontisekin debutatu du Arzelusek

AMEZKETA » Atzo Beñat Arzelus donostiar gazteak, Amezketa frontoian egin zuen debuta Frontis enpresarekin. Lehen partidari, Antxia eta Altuna berrobitarrak 22 tantoz irabazi zieten, Urdaniz eta Garmendiari. Jarraian, debutatua-ren partida izan zen; Bengoetxea VII.a eta Zabala, Amantegi eta Beñat Arzelusen aurka aritu ziren. Partida lehiatua izan bazen ere, azkenean, profesionaletako lehen partidari ezin izan zuen 22ra iritsi. Bengoetxea VII.ak eta Zabalak 22 eta Amantegi eta Arzelusek 19 bkatu zuten partida. Animorik ez zuten falta izan, bere jarraitzaileek frontoia bete baitzuten. ENERTZ, MAIZ

Olazabalek ezin izan zuen Olaizolarekin

Areso » Olaizola I.a Olazabal baino gehiago izan zen partida guztian zehar, 22-12 amaitu zen eta 43 minutu iraun zuen.

ERREDAKZIOA

Joan den urtean, Mikel Olazabal gazteak ezustekoa eman zuen, orduko buruz buruko txapeladuna zen Oinatz Bengoetxea leitzarra kaleratuz. Aurtin aldiz, Lau I. erdiko Txapelketako bere lehen partidari, larunbatean, ez zuen berak dakienik eman eta ez zen partida polita atera. Asier Olaizola goizue-

tarra erraz gailendu zitzaion gazteari.

Larrintzarren jokatu zen partidari, indarririk gabeko eta ahul agertu zen aresoarri. 5-0 hasi zen galzten eta ezin izan zion bueltarik eman partidari. Une guztian, atzetik aritu behar izan zuen gazteak. Ez zuen etsi azken tantora arte baina lanean serio aritu arren, 22-12 galdu zuen Lau I. erdiko Txapelketako lehen partida. 43 minutu baino ez zuen iraun partidak eta guztira 243 pilotakada izan ziren. Saketik, Olaizolak bi tanto egin zituen eta baita falta bat ere. Olazabalek tanto bakarra egin zuen sakea baliatuz eta hori 21-12koan izan zen.

Aresoarriak, eskuetako minez igaro du uda eta ez du berak nahi adina partida jokatzetik izan. Ondorioz, erritmo falta nabaritu zitzaion eta hori, tantorik gogorretan nabaritu zitzaion batik batik baina era berean, sufrimendurako duen ahalmena agerian utzi zuen Larrintzargi pilotalekuan.

Oraindik, 23 urte besterik ez ditu pilotariak eta aurtengo txapelketan ez bada posible izan ere aurrera joatea, hurrengo urteetan ziur aski aukera hobek izango ditu zain.

Orain Olaizolak, Xala eta Saralegiren arteko partidari irabazten duenaren aurka jokatu beharko

du. Ea amezketarri iristen den goizuetarriaren aurkako norgehiagokara. Ondoren, Titin III.a izango du zain.

Larunbatean Bengoetxea IV.a eta Olaetxearen txanda

Larunbatean, Oinatz Bengoetxea leitzarren eta Mikel Olaetxea leitzarren txanda izango da.

Lehenak, Iruñeko Labrit frontoian Beroiz gaztearen aurka jokatu du eta bigarrenak, Errenterian, beste gazte bat izango du aurkari, Retegi Bi. Ea larunbatean, eskualdeko pilotariak zorte hobea duten eta hurrengo partidari pasatzea lortzen duten.

6 DVD euskaraz

Zinema etxean 4

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria

HARPIDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 € ESKARJA, ESTERO: 943 693 435, harpidetza@berria.info edo www.berria.info

Batasunak: EUSKO JARDUARITZA EGITZITEN ERREKOR

Kalean euskaraz hitz egiteko diktura eta errazketa izan nahi duzu?

mintzalaguna behar duzu

Informazio gehiago nahi izanez gero: Bilbonako Euskara Zerbitzua 943 693 501 Zuzenbide Euskara Zerbitzua 943 692 495

Vitoriano Euskara Zerbitzua

E Elkarrizketa

MARIA LUISA AGIRRE › Medikua

Leburu-Txarama »

Lan handia egin du Tolosan eta inguruko herrietan pediatra gisa. Egun 90 urte ditu, eta guztia atzo pasatu balitz bezala gogoratzen du.

EIHARTZE ARAMENDIA (BERRIA)

Egongelako sofán eserita aurkitu dugu Luisa Agirre (Tolosa, Gipuzkoa, 1919), Leburuko etxean. Gelako lau paretetan argazkiak ikus daitezke nonahi, bere 90 urtetan bizitakoa grafikoki kontatuz. Medikuntza ikasketak egin zituen Espainiako hainbat lekutakoak daude, bere ezkontzakoak, batxilergo nota onekin bukatzegatik jaso zuen sariaren titulua ere ongi sartua du laukian, baita Tolosako Udalak egin zion omenaldian emandako oroitarria ere. Hori guztia ez du, ordea, musutruk eskuratu. Gorriak eta beltzak ikusi ditu, baina baita memento onak pasatu ere.

Betidanik izan nahi al zenuen mediku?

Batxilergoaren azken urtean neukan bereziki medikuntza egiteko ideia buruan.

Haur asko medikuetara jolasten dira. Zu ere horrela aritzen al zinen?

Medikuetara jolastu baino, etxean genuen liburu bakarra irakurtzen nuen: El médico en casa (medikua etxean). Beti hura irakurtzen, irakurtzen eta irakurtzen aritzen nintzen. Pena izan dut etxean beste libururik eduki ez izana.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Oro har, oroitzapen oso onak ditut. Etxean, ordea, nire aita zegoenean denak isil-isilik egoten ginen, beldurrez bezala; izan ere, aita oso zakarra zen, errieta besterik ez zekien egiten. 6-7 urterekin nire amari galdetu nion ea nola demostratu jasaten zuen aita, eta berak inoiz ez ziola entzuten erantzun zidan. Nire amak behin ere ez zion aitari erantzuten, eta horri esker bake handian bizi ginen.

Garai hartan oinarrizko ikasketez haratago joatea ez zen batere ohikoa.

Ez, ez zen ohikoa dirurik ez bazenuen behintzat. Gure etxean ere ez zegoen dirurik. Nire aitak treanean lan egiten zuen, eta berak irabazten zuenarekin oso gauza gutxi erosi ahal genuen. Hortaz, ikasketak aurrera ateratzeko dirua udal-letxetik eta horrelakoetatik lortzen nuen.

Diru laguntzek medikuntzako ikasketak egiteko adina eman zituzten?

Batxilergoa Donostian egiten hasi nintzen, Peñafloresta institutuan, Artzai Oanean. Donostiara joateko trena doan nuen, nire aita bertako

«Ez dut ulertzen oraingo medikuntza»



langilea zelako. Dena den, aita kartzelan sartu zuten gerra denboran, eta ni txartelik gabe gelditu nintzen. Hala ere, ez nuen denborarik galdu. Artzai Oneko apaizarengana joan nintzen nire ikasketak jarraitzeko doako toki bati buruz

Asko gustatzen zitzaidan ikastea, baina Tolosako Inauteriak ez nituen galtzen

Desidratazio handiak egoten ziren lehen, amek edozer gauza ematen zieten haurrei

Lehen, gizarte segurartzan sartzea oso zaila zen, oso politizatua zegoen, orain bezala

Kontsultaz aparte, gau eta egun etxez etxe ibiltzen nintzen, oso berandu arte

galdezka. Toki hori Bergaran aurkitu zuen, barrutegiko mojen komentubatzen.

Komentuan zinela, mojek euretako bat izateko proposatu omen zizuten...

Gela batean sartu ninduten, gurutze handi-handia zegoen gela batean, eta bokaziorik ote nuen galdetu zidan. Nik ezetz esan nion, medikuntza ikasi nahi nuela.

Eta hori erantzun ondoren, zer egin zenuen?

Madriren komenturik ba ote zuten galdetu nien, ikasketekin doan jarraitzeko. Ezetz esan zidaten, Errioxan bakarrik omen zuten komentu bat. Beraz, zer bait aurkitu beharra nuen lehenbailehen, etxean ez baitzegoen dirurik. Bitarte horretan nire aita aske geratu zen, eta treneko txartela eskuratu nuen berriz ere. Matrikula tokiz aldatu nuen, eta Donostiara itzuli nintzen.

Donostiara itzuli eta batxilergoa sari berezi batekin ere bukatu zenuen, ezta?

Ikasketa espedienterik onenanuela eta, Paulino Caballero saria eta 500 pezeta eman zizkidaten. Horrek poz handia eman zidan, eta sariarekin Tolosako Udalera joan nintzen, orduan Rafael Ariztia alkatearengana. Bekaren bat eman gote zidan galdetu nion, medikuntza ikasketak zazpi urtekoak baitziren, eta dirua behar nuen. Baietz erantzun zidan. A zer poza hartu nuen, udaletxetik etxera ia hegan joan nintzen!

Etxean ere poza hartuko zuten.

Egia esan, gertatutakoa kontatu nienean oso triste jarri ziren. Gai-xotu egingo nintzela esan zidaten; izan ere, odol pixka bat ikusten nuenean zorabiatu egiten nintzen. Horretara egingo nintzela esan nien.

Beraz, Tolosatik Madrileraako sal-

toa egin zenuen. Nolakoia izan zen aldaketa hori?

Abentura bat. Nire ahizpei Madrilera laguntzeko eskatu nien, eta berehala ezetz esan zidaten, emakumeak bakarrik ez zirela joaten. Nola zen posible? Beraz, mutil batzuekin joan nintzen, ez zitzaidan axola.

Medikuntzako ikasle gehienak gizonezkoak izango ziren, ezta? Nola sentitzen zinen?

Ez nuen arazorik. Karrerako lehen urtean ez zegoen neskarik, eta bigarrenean Sevillatik bat etorri zen. Gaur egun alderantziz da, gehienak emakumeak dira.

Dena den, karrera osoa ez zenuen Madrilin egin.

Ez, beste hainbat tokitan ere egon nintzen. Ikasi nahi zutenekin elkartzen nintzen, ez nuen denbora galdu nahi. Karrerako bi urte urte bakarrean egitea pentsatu genuen, eta horrela egin genuen. Salamancara joan gin.

Ikasle fina zinen, hortaz.

Asko gustatzen zitzaidan ikastea, eta, gainera, Salamancan nire bizitza alaitu zidan irakaslea topatu nuen: Guillermo Arce. Pediatría ematen zuen, eta niri hori gustatzen zitzaidan. Emakumei zuzendutako medikuntza orokorra egin nahi nuen.

Ikasi eta ikasi, ez al zenuen parrandarik egiten?

Nire parrandak gehienbat inaute-

riak ziren. Tolosan lehenengo urtean lanean nongoean jendeak esaten zuen: «Begara zein errespetu gutxi, mediku bat txarangaren atzetik saltoka». Niri bost! Asko gustatzen zitzaidan musikarekin batera saltoka ibiltzea. Hori bai, mozorrotu inoiz ez, ez zitzaidan gustatzen. Iruñeko sanferminetan ere ibiltzen nintzen, ez nuen urte bat ere utzi joan gabe. Gainera, doan joaten nintzen, treneko txartela dohanik nuenez...

Emakumei zuzendutako medikuntza orokorra egin nahi zenuela esan duzu, baina gizonezkoak izan zen zure lehen gaixoa, ezta?

Uda batean Iruñera joan nintzen nire izeba batengana, eta astea ospitalean pasatzen nuen praktikak egiten. Nagusiak itxarangelan zeudenen historiala egiteko esan zidan. Horietako bati, gizonezkoa bera, zer zuen galdetu nion, eta bere lotsarrietan marranta zuela erantzun zidan. Horixe besterik ez zitzaidan falta, ez nuen gizonei zuzendutako medikuntza egin nahi eta hasiera huraxe izan nuen! Ez nintzen gehiago itzuli ospitale hartara.

Pediatría ikasketak egin eta berehala hasi al zinen lanean?

Pediatría ikasten ari nintzela odol isuraldatzeak egiten ikasi nuen, eta oso garrantzitsuak zirela ohartu nintzen. Hortaz, Madrilera joan nintzen, eta han hematologia eta hemoterapia ikastaroak egin nituen. Odola ateratzen eta nolako kontserbatzen zen ikasi nuen. Hori egin, eta zentrifugagailu bat erosi nuen.

Garai hartan zein ziren gaixotasun ohikoak?

Desidratazio handiak egoten ziren, amek ez zekitelako ezer. Umeek egarria zutenean, amek, ura eman beharrean, bularra edo edozer gauza ematen zieten, eta haurrak okerrago jarri eta hil egiten ziren. Horrelako kasu asko zeuden, egun Afrikako ume batzuk ikusten ditugun bezala zeuden, hezurra eta azala soilik zuten.

Nola egiten zinen aurre kasu horiei?

Hematologia eta hemoterapia ikastaroak oso ondo etorri zitzaizkidan lanerako. Haur horiei odol isuraldatzeak egiten nizkien, eta mirariak egiten nituela zirudien. Ikaragarria zen.

Non jarri zenuen kontsulta?

Tolosan jartzea lortu nuen. Santanderren ikasketak amaitzen ari nintzela, Tolosan kontsulta non jarri ote nezakeen begira hasi nintzen. Toki on bat aurkitu nuen. Ile-apaintzaile batek saltzen zuen 5.000 pezetaren truke. Nik ez nuen diru kopuru hori, hortaz, Lucio Sarasolari, Legazpiko Udaleko bati, eskatu, eta eman egin zidan. Obrak egin eta kontsulta jarri nuen.

Kontsulta Tolosan izan arren, etxe batetik bestera ibili beharko zenuen, ezta?

Gau eta egun ibiltzen nintzen etxez etxe. Oso berandu arte ibiltzen nintzen kalean, Tolosako udaltzainburuak kargu hartu zidan arte. Ordu horietan bakarrik ibiltzea oso arrisksua zela esan zidan, eta etxe bat hartzeko aholkatu zidan. Halaxe egin nuen.

Beti Tolosan aritu izan zinen lanean?

Ez, egun batzuk Azpeitian pasatu nituen; izan ere, mediku batek esan zidan hemen [Tolosan] ez nuela lanik izango, mediku asko zeudelako. Azpeitian segituan hasi zen jendea niregana etortzen, Tolosan ere bai. Bi tokitan ezin nuen lan egin, gehiegi zen. Beraz, Azpeitia utzi nuen.

Pribatutik lan egiten zenuen?

Bai, hasieran bai. Ez zegoen modurik seguroan sartzeko, politika asko zegoen sartua, orain bezala. Denborarekin sartu nintzen. Momentu horretan ETA atentatuak egiten zebilen, eta kanpotarrak alde egiten hasi ziren. Seguroan hartu nuen plaza lehenagotik kanpoko batek okupatzen zuena izan zen. Oposaketak egiteko aukera jarri zuten ondoren, eta, bide horretatik, errazagoa zen sartzeko gizarte segurantzaren. Oposaketetara aurkeztu eta lanpostua ateratzea lortu nuen.

Medikuntza etengabe aldatzen doan arloa da.

Gaur egun zer egiten den ere ez dakit. Gure garaian medikuntza orokorra zen gehienbat, baina ondoren espezialista mota guztiak sortu ziren: biriketakoak, bihotzkoak... Ez dut ulertzen oraingo medikuntza. Orain jada ez daude lehen genituen gauzak. Lehen gauza gutxi-ekin konpontzen genituen arazoak.



Maria Luisa Agirre doktora izenarekin inauguratu zuten osasun zentroa Leaburun, 2005. urtean. HITZA

»MOTZEAN

■ Medikuntzako asmakizunik garrantzitsuena

Penizilina. Oso ederki etorri zen, baina oraindik txerto falta handia zegoen. Santanderren ikasten ari ginela ikaratuak gelditzen gin. Horietako batean haur bat jarri ziguten begi bistan, hankak zintzilik zituela. Ume horrek zer ote zuen galdetzen ziguten irakasleek. Haur perlesia zuen. Ikaragarria zen, trapuzko panpina zirudien. Geroago txertoa sartzen hasi zen, eta izugarritzko aldaketak egon ziren. Jendea ez da konturatzen txertoak zer-nolako lana egiten duen.

■ Santander.

Arce irakaslea. Bizitza honetan oso zoriontsu egin ninduen. Urtero idazten nion gutun bat zein zoriontsu egin ninduen esanez. Bestalde, Santanderretaz dudan beste oroitzapena itsasbartzerrarena da. Oso ederra zen, asko gustatzen zitzaidan hortik paseatzea.

■ Madril.

Gauza gutxi. Nire lana behar bezala egiteko ikastaroak bertan egin nituen, hori bai. Gainontzean bertako parkeak gustatzen zitzaizkidan.

■ Tolosa.

Hautzaro ederra. Asko jolasten nuen. Eta, nola ez, Inauteriak.

**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Bihar Ainaro Lopetegi osteoporosiaz eta bere sintomak nola arintzeaz arituko da 17:00etan Bizi Nahi jubilatuko elkarrean.

■ **Tolosa.** 1969. urtean jaiotako gizon eta emakumeentzako bazkaria antolatuko du azaroaren 14rako, larunbatarekin, Fronton jabetxean. Izen-ematea, 55 euro ingratsatuz La Caixa-ko 21001758 64 0100260547 kontu korrontean.

Kultur asteak

■ **Tolosa.** San Esteban auzoko Kultur Astea: Biharko egitaraua: 20:00etatik aurrera Taghia bertikala goi mendi eskolako kide den Jon Mujikaren eskaladako diaporama.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

» IRRATIA

Txolarre irratia

Tolosaldeko Ahotza:

-11:00-12:00. Albistegia (Eguraldia, eskualdeko albistegia, oharrak, agenda...)

-12:00-13:00. Magazina.

-13:00-13:30. Lehiaketa eta disko eskainiak.

13:30-14:00. Eguerdiko albistegia - Info 7.

14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.

17:00-18:00. Musika nobedadeak Tolosaldeko Ahotza (errepikapena):

-18:00-19:00. Magazina

-19:00-20:00. Albistegia

20:00-20:30. Iluntzeko albistegia, Info 7.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

Zezenekin esan diete agur jaiei

Gizartea » Atzo arratsaldean, zezen-plazan eman zieten amaiera auzoko festei; jende ugari bildu zen azken ekitaldian.

ERREDAKZIOA

Zezen txokoak plazatik ikulura ateratzearrekin batera amaitu ziren atzo Tolosako Berazubi auzoko jaiak. Arratsaldean, eguzkia sartzeraz aurrera garai berean esan zieten agur aurtengo festei.

Ostiral iluntzean, jaurti zuten festen hasierairagartzen zuen txupina, eta ordutik, festa giroa izan da nagusi Tolosako auzoan. herenegun, paella txapelketa, buruhandiak, zezen txokoak, zahagi sagardoa etabar izan ziren. Egunari amaiera musikarekin eman zioten. Horretarako, Manent eta Kraken taldeak gonbidatu zituzten. Baina azken hau ezin izan zen etorri partaideetako batek bi egun lehenago behatza apurtu baitzuen. Hala ere, talde tolosarrak jakin zuen bertaratu zirenen arreta erakartzen.

Atzo berriz, festetako azken egunean, babarrun jatea izan zen. Haur, Ori ibaiaren ondoan kokatutako karpantekin zuten. Bertan, 30 lagun inguru elkartu ziren. Eguraldia gainera aproposa zen horrelako bazkari bat egiteko. Bazkalondan, festetako azken ekitaldiak izan ziren.

Horretarako, eguraldiaren laguntza izan zuten. Izan ere, goiz guztian, euririk atsedenik eman ez bazuen ere, azkenean, arratsaldean atertu zuten, eta kalera, ateriaren beharrik gabe atertu ahal izan ziren. Horrela, bazkaltzeko egokitu zuten tokiaren ondoan, toka txapelketa jokatu zen. Bestetik, aipatu bezala, zezen-plazan,




Jende ugari hurbildu zen atzo arratsaldean, zezen-plazara, zezen txokoak ikusteko nahiz hauen aurrean korri egiteko. E. E.

zezen txokoekin jolasteko aukera izan zen.

Inauteriak zirela zirudien zezen-plazan, haur eta gaztetxo ugari hurbildu baitzen zezen txokoaren aurrean korri egiteko. Mozorroak eta txilabak falta zitzaizkien bertaratu zirenei, baina hala ere, kolore biziak eta giro bikaina ikus zitezkeen bertan. Atzokoak, Inauterietarako itxaron beharrean, zezen zaleen gosea pixka bat behintzat asetzeko balio izan zuten.

Lau eguneko jaien ostean, berriro normaltasunera itzuliko da Berazubi auzoa gaur. Hala, ibaiaren ondoan dauden barrakak jada joan dira, eta hurrengo urterta arte ez dira itzuliko berriro.



Atzo arratsaldean amaitu ziren Berazubi auzoko jaiak. E. EZEIZA



HITZAK harpidedun batentzat **sarrera para** du

Gazte Eguneko bazkaria

Urriak 17 • Larunbata • 14:00etan • Leitza



sarrerak

HITZAK 2 harpidedunentzat **2 sarrera para** ditu

Cocidito Madrileño 2

Urriak 17 • Larunbata • 20:30ean
Tolosako Leidorren



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula